

### Leopardo eta gizakia, elkarren etsai

1974ean leopardoaren ehiza debekatu zenetik, ondoko irudian ikus dezakezen animalia ohizko bizilaguna da Indiako zenbait lekutan. Himachal eskualdean 1993an osatu zen azken errol-



1974ean leopardoaren ehiza debekatu zenetik, ondoko irudian ikus dezakezen animalia ohizko bizilaguna da Indiako zenbait lekutan.

daren arabera, leopardo-populazioa %45 handiagotu da eta joera horrek gorantz segituko duela uste dute biologoek. Animalia horien iraupenerako albiste pozgarria bada ere, datu horiek ez lukete aparteko oihartzunik sortuko baldin eta leopardoek inguruko herriarrei eraso izan ez baliete. Aitzitik, azken

bost urteotan 30 lagun hil dituzte leopardoek. Zenbaitzuren iritziz, leopardo ehizatzea debekatu zenez geroztik, berezko kontrola edo kontrol naturala egite-rik ez dago. Biologoek iritziz ordea, debekua-ekin baino zerikusi zu-zenagoa luke baso eta oihanen neurririk gabe-ko ustiapenarekin he-rrien inguruan gero eta leopardo gehiago azaldu izanak. Berezko habita-

ta suntsitu izanaren ondorioz, animalia eder horiek bizileku berriaren bila ari direla uste dute.


### Etorkizuneko pinuak

par Carolinan pinudi berri bat dago Duke Unibertsitateko ikerlariak sorturikoa hain zuzen. Bistan denez, ez dira nolana-hiko zuhaitzak, ezta basozainak ere! Ikerlan bitxi horren helburua

izan ere, hurrengo mendean pinuek poluzio-baldintza berrien aurrean bere burua babesteko eratuko dituzten mekanismoak ezagutzea da. Hurrengo mendean ezagutuko ditugun baldintza ekologikoak auresanez, pinudiaren inguruan karbono(IV) oxidoa ohi baino kantitate handiagotan ponpatzen dute, pinuak hurrengo mendean arrunta izango den egoera horretara egoki daitezen.

Orain arte kaleratu direnak behin-behineko ondorioak baino ez dira, baina ikerketaren martxaz baikor azaldu dira biologoak. Agidanez, pinuek fotosintesia egiteko oztoporik ez dute izango etorkizuneko baldintzetan eta inolako eragozpenik gabe haziko direla uste dute. Ipar Carolinako pinudi-


Duke Unibertsitateko ikerlariak hurrengo mendean pinuek poluzio-baldintza berrien aurrean bere burua babesteko eratuko dituzten mekanismoak ezagutu nahi dituzte.



ko aleak esaterako, ohi baino altuagoak dira behintzat. Alabaina, hazkunderako joera horrek arerio nagusi bat izango du hurrengo urteotan: lehortea. Ikerlarien iritziz, pinuak ongi moldatzen dira epe motzera karbono(IV) oxidoaren emisioetara, baina lehorteari aurre egitea zailagoa izango zaie. Hipotesi hori baieztatzekotan, ureztatze-sistema berriak eta ur-menpekotasun txikiagoa izango duten landare-hibridoak aztertzeari ekin beharko zaiola iragarri dute.

### Bikote berriaren komeriak

Babirusako txerria izenez ezagutzen dira ondoko irudian ikus ditzakezen animaliak. Espeziea jatorriz Indonesiakoa bada ere, Winchesterren jaio zen emea eta Belgikan arra. Gaur egun Edinburgheko parke zoologikoan bizi dira, bertara eraman baitituzte bikotea osa dezaten. Maitasun istorio guztietan bezala, horretan ere une gozokak eta latzak tartekatuko direla espero da. Zalantzarik gabe harremanaren alderik ederrrena bikoteak espeziearen iraupenean joka dezakeen papera da. Babirusako txerria izan ere, desagertzeko zorian dagoen animalia da, orotara 150 ale baino



Babirusako txerria desagertzeko zorian dagoen animalia da, orotara 150 ale baino ez dago eta.

ez dago eta. Edinburgheko parke zoologikotik iragarri dutenez, bikotea ongi egokitu omen da bizileku berri-  
ra eta harremana eman-  
korra izango dela espe-  
ro da. Horren seinalerik  
garbiena bi txerriek  
berezkoa duten agresio-  
bitatea gutxiagotzen ari  
dela da. Begiz jotako  
epeak betetzekotan,  
hurrengo urtean bertan  
jaioko omen dira biko-  
tearen lehen kumeak.  
Orduan etorriko dira  
“ezkonberrientzat”  
unerik latzenak...

### Poluzioaren zezenari adarretatik helduz


**M**exiko Hirian eguzkia ikustea ez da batere erraza. Laino trinkoek estaltzen dute zerua eta goizean goizetik giroa ja-sangaitza da. Smog delakoa da erruduna, hot-

bazter guztietara hedatzen diren poluzio-multz-  
toak. Egoera kontrola-  
ezin bihurtzen denean,  
hiri barruko trafikoa  
eta iharduera industria-  
la mugatu egiten da.  
Orain arte ordea, hor-  
rek egun gutxitako  
atsedena baino ez du  
lortu eta debekua altxa-  
tu orduko azaltzen dira  
berriri laino beltzak.  
Kaliforniako kimikari-  
-talde baten iritziz, neu-  
rri horiek ez dute ara-  
zoa zuzen fokatu, trafi-  
koak eta industriak bai-  
no kalte larriagoak so-  
rRARAZTEN baititu etxeko  
kontsumoan erabiltzen  
den petrolio-gasak. Ho-  
ri mugatu ezean, ez da  
eguzkirik ikusiko Mexi-  
ko Hirian.

Bertako aire-laginak az-  
tertu eta gero, smog-a-  
ren osagai nagusia den  
ozonoa zerk sortzen  
duen aztertzeari ekin  
zioten. Hidrokarburoen  
eta atmosferako gasen  
arteko nahasketa ozo-  
no-iturri nagusitakoa  
dela baieztatu bada ere,  
LPG delako petrolio-ga-  
sak ozonoa kantitate  
handitan sorrarazten  
duela behatu da. Mexi-  
ko osoan LPG-a elektri-  
zitatearen ordezkatuz  
erabiltzen dela kontu-  
tan hartuz gero, hidro-  
karburoak baino kalte-  
garriagoa dela ondo-  
rioztatu dute. Petrolio-  
-gasaren kontsumoa  
murriztea eta horren  
erabilpena ordezka le-  
zakeen energi iturria  
ahalbideratzea litzateke  
irtenbide bakarra. Kimi-  
kari horien iritziz, zeze-  
nari adarretatik heltze-  
ko bide hori jorratu  
beharko da Mexikon.

### Bizilagun ikustezinak

**O**ndoko irudian age-  
ri den akaroa eza-  
guna gertatu ez  
bazaizu ere, balite-  
ke zure etxean bertan  
ere horrelako hamaika  
“bizilagun” izatea. Mi-  
kroskopia elektronikoa  
erabiliz behatu dugun  
akaroa gure etxeko al-  
fonbra eta moketatan



Biologoen iritziz, akaro-kopurua kontrolaezin bihurtzen ez den arte, animalia horiek ez dute osasun-arazorik sortzen. Kontsumitzaileen elkarteak ordea, ez dira iritzi berekoak.

bizi da, ehun lodi eta  
sendoak pausaleku bi-  
kaina baitira elikatze-  
ko eta ugaltzeko. Biolo-  
gen iritziz, akaro-kopu-  
rue kontrolaezin bihur-  
tzen ez den arte, ani-  
malia horiek ez dute  
osasun-arazorik sor-  
tzen. Kontsumitzaileen  
elkarteak ordea, ez dira  
iritzi berekoak eta iker-  
ketarako laguntza eska-

tu berri dute. Europako  
zenbait Osasun Erakun-  
dek etxetako bizka-  
rroiak ikertzeko diru-la-  
guntzak onetsi dituzte  
eta aurki jarriko dira  
martxan ikerketa-  
-proiektuak. Akaroen  
kontrako borrokaren  
lehen atala ekoizleek  
pairatuko dituzte. Esate  
baterako, alfonbrak egi-  
teko hidrokarburoak  
erabiltzea saihestu be-  
harko dute, material  
horiek maite baitituz-

te bereziki etxeko aka-  
roek. Hurrengo urtetik  
aurrera, ehunak akaro-  
rik ez duela adierazten  
duen “label berdea”  
eskuratu beharko dute  
alfonbra- eta moketa-  
-ekoizleek Europako  
zenbait lurraldetako  
merkatura heldu baino  
lehen.

